# Platica para la Dominica 10. despues de Pentecostes.

## De la humildad

Omnis qui se exaltat humiliabitur, et qui se humiliat exaltabitur.

Jasoten dan guztia izango da humillatua, eta humillatcen dana izango da jasoa. S.n Luc. 14. Cap.

Ala acabatcen da gaurco Evangelioa, ceñetan gura izanic Jesu Christo gure Jaunac iracutci araco, justoac dirian ustian, ifinten daubenac euracan euren confianza guztia, eta menospreciatcen ditube besteac, bequiratuten deustela dongatzat, propomitcen deuste parabola au.

Guizon bi, dio, joan cirian Templuira oracino eguitera: bata zan fariseoa, eta bestea publicanoa. fariseoac, zuti egoala, esaten eutzan Jaungocoari modu onetan: Neure Jaungoicoa, nic emoten deutzat graciac Ceregaitic eznazan beste guizonac leguez, lapurrac, injustoac, eta adulteroac; ezta Publicano au lequercoa ere. Nic barru eguiten dot astean birritan, eta emoten dot daucadan guztien amarrena. Ala zan bere oracinoa banidades betea. Santu zan templuban oracino eguitera, eta ala ere ezta topetan errequiric bapere esaten daben gur

tian. Etzan etorri oracino eguiten, ezta graciac emo ten ere Jaungoicoari, ezpada alabatcen bera, eta burlat cen oracino eguiten eutzanari berari, dio S.n Agustinec.

Contrara, Publicanoac queldircen zala urrin Altara tic, beintzat etzan atrevitcen jasotera beguiac Cerura; baña heritutem eben bere bularra, esaten ebela: Neure Jaungoicoa, eugui begui nire errruquia, nazana becata ri bat. Nic declaratcen deutzubet, gueituten dau Jesu Christoc, au biurtu zala justificaturic bere echera, eta ez bestea. Parcatu jacon Publicanoari bere becatubac, eta biurtu zan justificaturic; fariseoen virtuteac dira gauza ezac, eta sartcen da echean obendunago urten eben baño. ¿ Nundic datoz diferencia au? Da cergaitic izan jacon onirechiago Jaungoicoari Publicanoen hu mildadea, fariseoen accino onen alarde utza baño. Cergaitic edocein jasoten dana izango da humillatua, acabatcen dau Jesu Christoc, eta edocein humillatcen dana izango da jasoa: *Omnis qui se exaltat humilia bitur, et qui se humiliat, exaltabitur.* Etra emen erregla, neure anaeac, ezcaitecen engañatu: leguea da generala: da gure Maisu Divinoa publicatcen dabena: bearrecoa da, gustia beezatu didin. Jaso dai quezunian Ceure burua Ceruzano, andic atarraco zaut Surtraitic dio Jaunac. Gozatceaaren vide bacarra da humildadea; eta jarraituten eztabenac vide

aû, eta íñoz santuco Ceruban. Ycusi daigun, bada, gaur obligacinoa, daucaguna humillatceco, eta moti voac, empeñatcen gaubenac artan: Lenengo: humil dadea da virtute bat dana guztiz bearrecoa. Bigarrena: Daucagu motivo arco obligatcen gaube nac practicatcena.

Lenengo Puntua.

Cer da, bada, humildadea? Da virtute bat, dio Sn Bernardoc, ezagutu eraguiten deuscula cer garian; eraguiten deuscuna menospreciatcen gu gueuroc. Consideratcen danean nobera, icusten dau cer dan, eta cer eztan, comparatcen ditu bere uts eguiascoac bere virtute pretendidubaquin, eta ezagutcen dala alacoa nolacua dan, despreciatcen da, eta eztau eguiten bere es timacinoric; ordubán ezan leique dana humildadea. Ala humildadea eztago verbetan, campoco accinoetan, farteco sencilloetan, ibiltean beguiac bera ditubala, da edificatcen daben gauza bat; eta ezin ichi leique erre provatu baga Christau batepan ayre altivo bat, larregiia, eta fartecoen vanidadea; humildadeac consistitcen dau noberaren uste basu baten, fundaduba bere ereneceen, eta bere miserien ezaqueren gañean. Ara emen Cersdan humildadea. Humildadea da Virtutinoen, eta piedade Christinadu guztien cimentuba, eta funda mentuba.. Da virtute aû, dio Sn Bernardoc, al

canzatcen deusqunac beste guztiac, conservatcen deus cunac errecividuz ezquero, eta obetuten ditubanac: *Ut dentur merentur, aceptas servat, servatas consumat*; Emon deiegun lurrapen tanta bat verba onei, ezaputute co obeto virtute onen necesidadea.

*Ut dentur merentur*. Da Humildadea alcanzatcen ditubana beste virtuteac. Merdepetuten dabenac esan dai que berapaitic, Salomonec esan cijoana Saviduriapaitic; *Venerunt mihi omnia bona pariter cum illa*. ¿Da necesario paciencia? Humildadeac iracusten dau exercitatcera. ¿Gura da alcanzatcea pecatuben parcacinoa? Jaungoicoac emoten deutzo humildadeari. Berba baten, izan zaitece humildeac, eta alcanzatuco dozube Jaungoicoa gandic escatuten dozuben guztia. Graciaren euriac iragoten dira humilden gañera, urac iragoten diriana leguez ibarretic, Jaungoicoac erresistitcen dabena le guez soberviosai, ala emoten dau gracia humildeai. S.n Agustin egoan arin convencituric humildadea da la virtute guztien sustraiya, nola soverbia vicio guz tien principioa, ece escrivitcen eutzala bere adiquide Dioscori, itandu eutzana cein zan virtutea exartuco eutzana beste guztien practica, erantzuten deutzo, dala humildadea; Virtute onetara deseatcen dot neure adiquide maitea, aplicatu zaitecen ceure viotz guztitic. Nic estod topadu besterio au baño: leenengo

videa artu bear dana Ceruraco da humildadea. Biganre
na, da humildadea, irugarrena, da humildadea; eta
Cembat vider itanduten deutzarun videagaitic, daroia
na gloriara, eranzungo deutzud beti, dala humildadea;
beste vide guztiac dira falsoac, eta daroe ondamenra.
acceptas servat. Eztago gauza peligrosoagoric, ataraat
cea baño publicora guere virtuteac: amodio propioa
da enemigo mortal bat: eztitu ataretan publicora,
emoteco baño eriotzaco golpea. Onegaitic ciñoan David
dec, chito ebela bildur eguinen altuara: ab altitudi
ne diei timebo: Sn Basilioc dei eguiten deutzo Vana
gloriari virtuten arra. Sn Agustinec dijo. Soverbia
distinguitcen dala beste vicioetatic, oneec jaiotcean
becatubetatic, eta Soverbia dala bildur izatecoa obra
onetan ere: ¡Ah cembat Christau galdu ciriean one
gaitic! Ydiqui albaguegui infernuba, cembat anima
icusico guituquean jausi ciriana an sovervriagaitic,
Lucifer leguez! Cembat devoto, eta devota irudiran on-
datu dira an euren hypocresia eriotzaagaitic, cornom
pitu citubanac euren obra on guztiac. Cembat Solita
rioc, urdindu ciriana desiertoetan ainbeste baru, peni
tencia, eta mortificacino ain gogorretan euren aquin
tarien pean, galdu euben, arguenez, virtute oneec
guztioc, eugiñ ezagaitic humildadiena, dana bere balu
artea, eta ceñec bacarric conservatu daigue, eta

erean arquenecoa acaberaxa! Seavatas Contumat. ¿Gora gotu guradozube gauza andietara? dijo S.n Agustinec, asi zaitece chiquinetatic: Magnus esse vis? à minimo incipe. Gura dozube jaso chito altura piedade Christinadu ben edificacioa; pensatu equizube lenengo humildadien cimentuban: jaso gura danean arco heche bat, idiqui ten dira ondo cimentubac altuarien proporcinoan: gura badozube bada, jaso arco perfeccinoa, esarri equi zube humildade andien cimentubac. Au da Santubac equi eben conducta. Icusi equizube S.n Pablo erositu nic predicatceco Evangelioa Gentilai, eta izan zana jasoa irugarren Ceruraño; ala ere beguiratcen da Apostolubeen arquerengoa leguez; juzgatcen da clare onen indigno, equiten da becatarien lenengotzat, izan dalaco Jesu Christoren perseguidorea. ¿Nundic jaso ten da au? Da cergaitic Apostolu andi au, equico ebe na aumbente altuan Eleizan, etzan cansatuten humillatceran: artuten cituban bere virtuteac, eta ba carric acordatcen zan bere becatubaquin. Au izan zan, neure anaeac, Santu guztien disposicinoa, eta onec izan beardau guriac ere, gura badogu errecivi du eurac leguez gueure virtuten Saria.

Eta ondo ondo, neure anae maiteac, entzun dozube, Humildadea dala guztiz bearrecoa, bera bapa ezin santu leitequiala Ceruban; dala virtute guztien

ama, eta guarda; dala ifinten dabena sepulturan, eta daroiana bienaventuranza eternoen portura: sufritu eguizube orain itandu deguizubedan, urrabaci dozuben virtute onen guchienen gradu bat; ¿Zare humildeac ceuben jarteroetan, ceuben dengnoetan, eta ceuben Conductan? ¿Baña gustis gañean daucazube humildade au viotzean dana bere centroa, eta bere citeguia? Ay! Artean badozube nequea examinatceco onen gañean, topaduco dozube menturas beti beguiratu deutzazubela indiferenciar, ez eratea gaitic menospreciorar. Ezagutu eguizube beintzat orain daucazubena necesidadea berarena. Proposituco deutzubet motivoac, empeñatu bear zaubenac bere exercicioan.

Bigarren Puntua.

Guria badogu idigui beguiac, icusico dogu erras eztagoala ezer lurrean, emoten eztautcunic humildadien leccinoac; baña gustien artean eztod ezer topetan, eguin bear leuquianic moguimentu gueiago gure gañean. consideracinoac baño Jaungoicoaren grandezenac, Jesu Christoren beeratcenac, eta gueure miseria propioenac.

Consideratu deilegue Jaungoico baten anditasuna, ezerentu baga bere aurrean. ¿Nun dago enrepresentetan dana bear dabena leguez Yzate Soberano onen

Magestade gorena, bere perfeccino infinitoac, bere eter nidadear bere poderia, bere justicia, bere providencia, beti onguillea, eta beguira guze necesidade guztietara, icu sño ertana obligaturic deadar equitera Erreque Profe tiar: *Substancia mea tanquam nihilum ante te.* ¡Ay neure Jaungoicoa! Ez, ez naz ezer bat baño Berorren aorrean. Beintzat bear da erreconnoitcea federa urtetu teco sentimentu ain justoac. Eta Jaungoicoen Mages tadeac humillatu bear izan dau; bere seme Jesu Christoren beeratceac ertau laguntcen guchiago artara.

Jaungoicoa mantendu zan artean arazo granderan jaconia proprioa, humildadea zan cari ez ezagutua lu rrean; baña bere Seme Jesu Christoren encarnacinoa ozquero, topetan dau guizonac Jaungoico baten hu humildadea, cegaz osatu bere biotceco andituba. Consideratcen dodanian Jaungoico batec humillatu guna izan obela nigaitic, ez bacarric guizon equite raño, baita equiteraño ere guizonen izaina; icusten dodanian Jaungoico encarnadu au jarraitcen bare za, eta humillacinoen videa arcatic Ceruraño; Ordu ban, dio S.^n Agustinec, lotzatuten naz neure sobervriaz, eta daucat lozaria aprovechatu narelaco ain dongaro neure Salvadore adoragarri onec emon deutan leccino importante onegaz, lurrean vici izan zan dempora guztian: *Discite a me quia mitis sum, et humilis cor*

de. ¡Cer! Jaungoico bat humillatcen dá, eta exerestu ten da; ¡ eta lurreco ar bat atrevitcen da ollartutera! ¡ Jaungoico bat vici izan zan illuntanuman, eta me nospriciöan, ¡ eta guizonac gura dau izan estimaduba eta honradubá! ¡ Ay Jauna ! au da sufritu eziña, eta eztago demonioen sobervia baño, exreristitu dai queana alaco exemplu bateri.
Humildadien izugarren motivoa da geure miseria propioa. Edocein aldetara biratu didilla guizona, da car berapan bere humillacinoen principioac, eta mo tivoac. ¿ Cer da guizona atrevitceco blasonatceco, edo anturtetutzeco bere saiatzaiaz? Loiqueria saio baño lena gó, miseria datorremian mundura, eta urteltanena urteten dabemian emetic. Jaio andra bategandic, vici izan guchi, negar arco, eta ill lanter, da bere patri monioa, eta Job-ec eguiten daben erretratuba bera gaitic.

Bardin guizonac badauco doeac, eta ta lentoac, dauco gurtiac Jaungoicoen escutic, errepartit cen dituban bacochari bere voxondateari danez, eta sarraiguino ezin gloriatu deiteque. urte badau norbai tec dana cerbait, enganatcen da, dio Sn Pabloc. Cer gaitic izatec ezta ezer bere.
Convencituric geure flaqueciar, eta obligaturic geure miseriagaitic humillatcera, amatu daigun gurtioc

virtute bat, jacuna ain bearrecoa: aplicagaitecen gustioc equitera batac besteaquin: izan gaitecen hu mildeac lecu gustian, eta ocasino gustietan.
Esan daiguan Davidegaz: ez naz contentatuco izateaz humildea besten bequietara: izango naiz neure propio etara ere: amatuco dot virtute bat, dana ain onrini chia Jaungoicoari, eta ceñen Jesu Christoc emon deun tan exemplu ain eder bat. Valorea, neure anaeac; antzazube benetan betute au; eta bear gueiago salve taco, chito becatari andiac izan bazare ere, nic entod deresperatcen zuben salvacinoaz, bazare humildeac. Osa tu equizube soverbia: practicatu equizube humildadea, eta laster euquico dituzube beste virtuteac: egongo zare mansoac, modestoac, pacienteac &c. baña bazare sobervioac, egongo zare beti disputan, quimeran, eta izango zare sufritecinac ceuroi, eta besteai. Aplica zaitece, bada, neure anaeac, virtute eder onetara: berac procuratuco deutzube unioa, eta baquea proximo az, conciencia on baten sosieguba, ceuben becatuben par cacinoa, eta baquetuco da zuben faborez Jaungoicoen Justicia, noc prometitu daben euquitea humilden mi sericordia. Humiles espiritu salvabit. Au da deseatcen deutzubedana, &c.

MAN 700
FUNDACION SANCHO EL SABIO FUNDAZIOA